

Artzibarko Udalaren WEB-ORRIAN edukiak eta kolaborazioak argitaratzeko arauak

- Udala ez da arduratuko argitaratuko diren ideia eta iritziez. Ardura osoa egileena izango da.
- Udalak argitaratzeko eskubidea gordeko du. Argitalpenaz arduratzen den taldeak testuak laburtzeko edo irudien hautaketa egiteko eskubidea gordetzen du, bikoizketak, edukien gainkarga, eta abar saihesteko, eta egileari jakinaraziko zaio, laburpena edo hautaketa berrikus dezan eta iritzia eman dezan.
- Egileak esan beharko du bere ekarpenean bere izena edo goitizena edo anonimoa jarriko duen.
- Aipatutakoaz gain beste arazoren bat egonez gero, erredakzio kontseiluak edo Udalak egoerari irtenbidea emango dio.

Kolaborazioak egin ahal diren arloak

Hauek dira kolaborazioak egin ahal diren arloak, web orria egituratzen dutenak:

- Ibarreko eta herrietako historia, ohiturak, ipuinak, kondairak...
- Izadia
- Geografia
- Turismoa
- Dokumentazio zaharra: egunkariak, argazkiak, mapak...

Argitaratuko den testua edo irudiari buruz

Publikoaren arreta lortzeko, lehentasuna emango zaio lanaren edukiaren zuhertasuna eta errespetuari.

Web orriaren helburua ez da iritzi politikoak bultzatu edo eztabaidatzea, hortaz, kolaboratzaileek ez dute talde politikoen jardueretan parte hartuko ezta horien gaineko iritzitik emango.

Testuak

Hizkera argia izango da, ez da ezer ziurtzat emango, jende orok uler dezan. Hitz teknikoen edo siglen esanahia azalduko da erabiltzen

diren lehenengoan. Ez da onartuko hizkera itsusi edo errespetugabekorik.

- Gaztelaniaz eta euskaraz idatzitako lanak onartuko dira, web orria bi hizkuntza horietan dagoelako egina.
- Argitaratuko den artikulua den gutxieneko eta gehienezko luzera.
- Titulua eta hitz-gakoak (4-6), gaztelaniaz, eta ahal dela, euskaraz.
- Tarteko tituluak edo atalaren burua, testua antolatu eta hobeki irakurri ahal izateko.
- Testua gaztelaniaz dagoenean, letra etzanak gaztelaniaz ez dauden testuetan bakarrik erabiliko dira. Adibidez latinez, euskaraz edo frantsesez idatzitakoak. Euskarazko testuetan latinez, gaztelaniaz edo frantsesez idatzitakoen kasuan etzanak erabiliko dira.
- Ez erabili gehiegi letra larririk, Interneten oihukatzen edo zerbait inposatzen ari garela ematen baitu.
- Edukia nabarmentzeko letra lodia erabiliko da.
- Argazkiak, marrazkiak eta grafikoak eranskinetan bidaliko dira, eta testuaren zein zatian sartuko diren esan beharko da. Artxibo horien titulua eta hitzak erantsiko dira, lanean agertzen diren hurrenkeran zenbatuak.
- Orrialdearen oineko oharrak gutxi izango dira eta testu nagusia osatzeko erabiliko dira.
- Komatxoak honetarako erabiliko dira: Aipamen bibliografikoak testuan sartuko dira edo bukaeran jarri, deskribapena emanez, adibidez honakoa sartuz: egilea, titulua eta argitaratutako urtea. On-linezko baliabidea izanez gero, lotura aipatu.
- Testua argitzeko oharrak egonez gero, aipatutako lekuan jarriko dira, goi-indize zenbakia jarritz.

Irudiak

Argazkiak, mapak, marrazkiak, grabatuak... originalak izango dira, eta hala izan ez balitz, ez dute egile eskubiderik izanen, eta aipatu beharko da nondik hartuak izan diren eta egilea, ezaguna den kasuetan.

Lanaren egilea edo egileez

Egileak bere izena, abizenak eta NAN zenbakia, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa emango ditu, berarekin harremanetan jarri ahal izateko. Datu horiek barneko erabilerarako eta pribatuak dira.

Curriculumaren laburpena eranstea gomendatzen da (hiru lerrotan).

Kolaborazioen egileek bere lana jaso izanaren agiria jasoko dute, baita argitaratuko den gutxi gora beherako data.

Lana argitaratzen denean Udalak parte hartzen duen sare sozialen bidez zabalduko da, egilea edo egileak aipatuz.

Web orri honetan parte hartzeak beste argitalpen batzuetan ere erabili ahal izatea dakar. Egileak bere eskubideak mantenduko ditu.

Egileak bere ekarpenak web orritik kendu nahiko balitu, talde teknikoari jakinaraziko dio eta kentzeko beharrezkoa den denbora itxaron beharko du.

Berezia

Web erredakzioaren gida azkarra.

<http://www.redaccionseo.com/mini-guia-rapida-de-redaccion-web/>